

Haurreskoletako zuzendaritzak gaur egun indarrean dugun Lan Hitzarmena ez errespetatzeko erabakia hartu du.

Borrokan jarraitzea beste biderik ez digu uzten.

Urtarrilaren 12an sindikatuek Haurreskolak Partzuergoarekin egin genuen bileran, dakizuen bezala, 15 eguneko epea eman genion zuzendaritzari Eusko Jaurlaritzak onartu dituen murrizketak direla eta, bere jarrera zein den argitzeko.

Zuzendaritzak gaur bertan baieztatu digu, gure lan hitzarmena ez duela errespetatuko eta Mahai Orokorrean inposatu diren murrizketak aplikatuko dizkigula haurreskoletako langileoi.

Partzuergoaren nahien kontra eta LAB eta STEE-EILASEk sinaturiko akordioaren aurka, ELAk salatu zuen onartezina zela Haurreskoletako langileon lan-baldintzak gurea ez zen beste mahai batean negoziatzea, are gehiago langileok aurrez agerturiko indarra eta borroka gaitasuna kontutan izanik eta Mahai Orokorrean Eusko Jaurlaritzak agertu duen jarrera ikusirik.

Horri eutsita, aitzakia bikaina aurkitu du orain Partzuergoak murrizketa berriak inposatzeko, izan ere Mahai Orokorrean inposatu diren murrizketa berak inposatuko dizkigutela adierazi digute. Hauek dira Mahai Orokorrean aplikatuko dituzten murrizketa nagusienak eta ondorioz haurreskoletako langileoi ere aplikatu nahi dizkigutenak:

- 1. 2012ko soldatak izoztea.** 2009ko soldatekin jarraitzen dugunez gure eroste ahalmenak 5,4 puntu egin du behera.
- 2. Baja-egoeran dauden langileei soldata-osagarria murriztea.**
 - 1go bajaran, 1 eta 3 egunak bitartean soldataren %50; 2. jasan %40 eta 3. bajatik aurrera %0.
 - 4. eta 20. egunak bitartean soldataren %75eraino.
 - 21. eta 44. egunak bitartean soldataren %85eraino.
 - 45. egunetik aurrera soldataren %100.
 - Salbuespenak: Amatasun/aitatasun baja, haurdunaldiko arriskua, edoskitzaroko arriskua, ospitaleratzea, ebakuntza kirurgikoa, lan-istripua edo lan-gaixotasuna.
- 3. Errelebo-kontratua bertan behera uztea.**
- 4. Ordezpenak egiteko atzerapenak edo ez egitea.**

Guztiz onartezina da hitzarmen berri baten negoziazioaren baitan honelako murrizketa neurriak inposatu nahi izatea. Iazko mobilizazio dinamikari jarraipena eman, antolatu eta eraso hauei aurre egin behar diegu. Behin eta berriro frogatu dugu gure indarra eta borrokatzeko gaitasuna eta oraingoan ere agertuko dugu.

Badugu berehalako hitzordua **otsailaren 9ko lanuztean eta 12:30etan Gasteiz, Bilbo eta Donostian** egingo diren **manifestazioetan**.

INFORMATZEN JARRAITUKO DUGU!!! AFILIA ZAITEZ!!!!
GUZION ARTEAN MURRIZKETEI AURRE EGIN ETA
LAN HITZARMEN DUIN BAT LORTUKO DUGU!!!!